

TORRETA GAZTEA aldizkaria

Aurtengo urritik aurrera Ermuko gaztediak beste aldizkari bat du irakurtzeko eta gazteen gauzetaz informatzeko,

Dagoeneko irten da kalera 0 zenbakia, herriko hainbat tabernatan, Liburutegian eta Torreta Etxean bertan eskura daitekeena. Esan behar, aldizkari hau Torreta Etxeko zenbait bazkidek atera dutela aurrera, Udalaren laguntzaz.

Edukiari buruz, Institutuko zuzendariari eta alkateari egindako elkarrizketak, liburu, musika eta zinemari buruzko informazioa, komikia, olerkia, erreportaiak eta

abar ikusi daitezke.

Erabilitako hizkuntzei buruz, pare bat orrialde kenduta gainontzeko %90 gaztelaz idatzia da, agian zera ahaztuz, Ermuko gazteen artean, geratzen den %10 horrek baino askoz gehiagok dakitela edo behintzat ikasten ari direla euskaraz; bestalde, bi orrialde horietan agertzen den ortografi eta gramatikazko akatsen kopurua erderazkoetan baino askoz altuagoa da. Halere, hemendik aurrera hobetzeko asmoa dutela diotenez gero, euskarari merezi duen garrantzia emango diotelakotan, animo!

Iosu Etxaniz

GAZTAÑERRE EGUNA

Galdu xamar dauan usadizo bat biztia ta herritar jendian artian bihar dan besteko harrerria eukitzia, askotan ez da totaleko erreza eitzen.

Gaztaiñerre eguna, esate baterako, luzaruan Domunsantu egunaren osteko bigarren astelehenaren izena besterik ez da izan.

Azken urtiotan, banaka batzuentzat lagun artian afaldu ta gaztaiñak jateko atxakixia izan da. Baiña aintziña beste modu batera bizi izaten zan Gaztaiñerre egun hau.

Gerra aurretiko urtiotara jo bihar izan dogu. Sasoi

haretan, Ermuan baserri asko zeuazan ta herriko jendia bertara juaten zan, beheko suko erregaldaran erretako gaztaiñak jatera. Ez zan baiña

gaztaiñ-jan hutsa. Batzutan talo ta esne berua be egoten zan. Beste askotan, panaderi-xan ogixakin batutako txorixo bokadilluak eta sagardua eruaten zan. Herri osuan zabalduta zeuan ohitxura bat zan.

Usadizo honi eutsi nahian, azken urtiotan AEKak herri afarixa ta jai txiki bat antolau ditzu. Aurtan be horretan dihardu ta herritar guztixei luzatzen doutsie konbitia. Ez ahaztu gaztaiña erreak banatuko diala! Hartu zure patata tortillia ta nahi beste gaztaiña jateko prest etorri zaitxez!

Estibalitz Gonzalez

Eskerrikasko Maria Bengoetxea eta Joseba Idigorasi.

GADIFOL -en

Aukera guztiak
KODAK *garantiaz*

Komentukoa, z/g.
Tlf. eta Faxe: 17 06 71



QUETZAL

Opari denda
Zure gustokoa izan dadila!

Goienkale kalea ☎ 17 43 62

HERRERO

Txarkuteria




Erdiko kale, 7
ERMUA

E I
ERMUA INFORMATIKA

TRESNERIA ETA OSAGAI
INFORMATIKOEN SALMENTA

Goienkale kalea z/g
Telefona (943) 17 38 24

MENDIOLA JATETXEA



Erdikokale, 19, Tlf.: 943-172243
48260 ERMUA

HARATEGIA **URDAITEGIA**

ROSA MARI

Baserriko okela
Etxeko odoloste eta txorizua

Zubiaurre, 22
Tfnoa. 17 06 80